

Getxo >MEETING<

GetxoMeeting, ekainaren 8a: *Pitching*

Getxomeeting udalerriko pertsona ekintzaileen eta enpresen arteko hamabosteroko topaketa da. Saioak bi ostegunetik behin egiten dira, hilabete guztietan, 12:00etatik 14:00etara, eta helburua esperientziak partekatzea, sare bat osatzea eta erkidegoan ikasketa eraikitzea da.

Parte-hartzaile bakoitzaren jarduera ezagutarazteko aurkezpen-txanda egin ostean, bezero perfektuei buruz aritu gara. Izena, forma eta ezaugarriak jarri genizkien zuzendu nahi garen pertsoneri; hau da, elkarlanean aritzeko, zerbitzuak nahiz produktuak saltzeko edo beste proiektu batzuk aurkezteko izan nahiko genituzkeen horiei.

Salmenta-diskurtsoa prestatzeko jarraibide batzuk eman ostean, parte-hartzaileek lan pertsonalagoa egin zuten, *pitch* egokia eraikitzeko hausnarketan ardaztutakoa.

Saioaren erdian eta entzuleei aurre egin aurretik, tarte lasaiago bat izan genuen kafearekin, eta halakoetan beti sortzen dira enpresen arteko harreman interesgarriak.

Diskurtsoak modu dinamikoan eszeneratu ziren; gainerako parte-hartzaileek bezeroen papera hartu zuten eta pertsonarekin aritu ziren; azkenik, esku hartzeari buruzko iritziak partekatu zituzten, bai jarduteko era nahiz moduari, bai mezuari buruzkoak.

Ondorioak interesgarriak izan ziren, pertsona batzuek horrelako ariketa bat egiten zuten lehenengo aldia izan baitzen; hala, hobetu beharreko alderdiak hauteman eta praktikan jarri ahal izan zituzten. Bertaratutako beste batek adierazi zuen pertsona desberdinen *feedback*-a jasotzeak, beste esperientzia batzuekin batera, etorkizuneko bilerentzako beste ikuspuntu batzuk eman zizkiola. Halaber, taldearen naturaltasuna saioaren alderdi positibotzat jo zen.

Hurrengo saioa ekainaren 22an izango da, udaren aurreko azken Getxomeeting-a izango da!

Saio berezia izango dugu hori. Sormena lantzeaz gain, sormenezko ideiak bilatuko ditugu enpresa eta pertsona ekintzaile parte-hartzaileentzako.

Dagoeneko jakingo duzun bezala, izena eman beharra dago saio bakoitzean. Hainbat aukera dituzu horretarako:

Mezu bat bidal dezakezu getxolan@getxo.eus helbide elektronikora.

Edo, bestela, 944660140 telefono-zenbakira deitu.

Nahiago baduzu, Getxolanera ere bertaratu zaitezke (GetxoElkartegia; Ogoño kalea, 1, Areeta).

Networking horiek interesgarriak direla baderitsozu, norbaitekin parteka ezazu!

Hurrengoan ikusiko dugu elkar :)